



## EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Juntadura bidezko perpausak -I-

>Alborakuntza:  
emendiozkoa,  
hautakaritzakoa,  
aurkaritzakoa,  
kausazkoa.

## **NOLA ERABILI *Juntadura bidezko perpausak -I-***

Esku artean daukazu bideoan bost atal nagusi bereiz daitezke. Atal bakoitzaren amaieran klasean egiteko hainbat ariketa proposatzen dizugu.

### **-Alborakuntza**

-Juntadura eta alborakuntza zer diren.

-Alborakuntza: adibideak eta juntagailuak.

**-Emendiozko alborakuntza 07:21**

### ***PROPOSAMENA***

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagozkien orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta atalaren bukaeran, koadrotxoan, proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori eginda bideoa ikusi.

**-Hautakaritzako alborakuntza 13:24**

### ***PROPOSAMENA***

Bideo-gelara jo aurretik, atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta atalaren bukaeran, koadrotxoan, proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori eginda bideoa ikusi.

**-Aurkaritzako alborakuntza 16:26**

### ***PROPOSAMENA***

Bideo-gelara jo aurretik, atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta atalaren bukaeran, koadrotxoan, proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori eginda bideoa ikusi.

-Kausazko alborakuntza 19:40

### **PROPOSAMENA**

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagozkien orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta atalaren bukaeran, koadrotxoan, proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori eginda bideoa ikusi.

### **-ATAL DRAMATIKO LUZEA: GRAMATIKAKERIA.**

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

**-Lau ikasleko taldetxoak egin.**

**-Gidoia irakurri**, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**-Gidoia irakurgai bihurtu** alborakuntzazko formak erabiliz.

*Esaterako, Mikel eta Lorea etxean daude. Ez dakite zer egin. Alde batetik janaria daukate, beste aldetik telebista. Bai telebistari begira, bai ogitartekoa jaten ongi pasako dutela uste dute.*

**-Irakurgai irakurri.**

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu. Atal dramatiko luzea ez ezik, beste atalak ere ikus ditzakezue birpasa modura.

# EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

## 2. kapitulua

### Juntadura bidezko perpausak-I-

**Juntadura.** Horra hor hitz bitxi bat. Juntadura. Zer ote da junta-  
dura? Ziur aski juntatzearekin zerikusia izango duela pentsatuko duzue.  
Bada, bai. Asmatu duzue. Juntadurak maila bereko bi perpaus elkartzen ditu.  
Juntadura normalean juntagailuen bitartez bideratzen da. Normalean diot, zeren  
eta batzuetan inolako juntagailurik gabe, hau da, alborakuntzaz elkartzen baitira  
perpausak.

**Alborakuntza.** Horra hor beste hitz bitxi bat. Zer ote da albora-  
kuntza? Badakit; pentsatzen ari zarete alboan jartzearekin zerikusia duela. Bada,  
bai. Oraingoan ere asmatu duzue. Bi motatako juntadurak bereiz ditzakegu:

ALBORAKUNTZA:  
juntagailurik gabeko juntadura

Juntagailu bidezko  
juntadura

Has gaitezen lehenengo juntadura-mota aztertzen.

### *alborakuntza*

MIKEL	Ni ohera noa; oso nekatuta nago
LOREA	Joan lasai; laster noa ni ere.
MIKEL	Ez kezkatu nigatik; geratu hemen.
LOREA	Aspertu naiz; bihar jarraituko dut.

Ikusi duzuen bezala gure lagunek inolako lotura-hitzik gabe elkartu  
dituzte perpausak. Dena dela, beti izaten da nolabaiteko lotura semantikoa bi  
perpausen artean. *Ohera noa; oso nekatuta nago. Nekatuta nago; ohera  
noa.* Izan ere, *euria ari du eta etxea berria da* perpausak ezinezkoa da  
elkartzea. Logika kontua da.

Ohera noa; oso nekatuta nago.

~~Euria ari du; etxea berria da.~~

Batzuetan, alborakuntza, hitz edo egitura jakin bat errepikatuz bideratzen da. Errepikatzen den hitz edo egitura horri *laguntzaile* deituko diogu.

- LOREA** Begiratu ditut ariketak, eta bai zureak, bai nireak **denak** gaizki eginda daude.
- OLATZ** Alferrik da, **nahiz** etxean egin, **nahiz** liburutegian, beti egiten dut gaizki.
- LOREA** Lasaitu zaitetz. Ez da horrenbesterako, eta. Ez zaitut ikusi nahi, ez negarrez ez deprimiturik.
- OLATZ** Hori erraz esaten da, baina, etxeko lanak direla, erosketak direla, fulbitoa dela ez daukat astirik ezertarako. Noiz ikasi behar dut?
- LOREA** Beno, aski da. Oraintxe bertan **bai** zu, **bai** ni, **biok** joango gara dantzara.
- OLATZ** Dantzara? Zu erotu egin zara... Egia esan joango nintzateke; baina, oraindik ez naiz ez dutxatu, **ez** jantzi, **ez** apaindu, **ez** ...
- LOREA** Et, et, et, aski da. Prestatu eta goazen.

Errepikaketa bidezko alborakuntza gauzatzeko, era guztietako *laguntzaileak* erabiltzen dira: aditzondoak, galdetzaileak, zenbatzaileak...

<i>ez..., ez...</i>	<i>bai..., bai...</i>	<i>...-la, ...-la</i>	
<i>alde batetik..., bestetik...</i>	<i>nahiz..., nahiz...</i>	<i>zein..., zein</i>	
<i>hala..., nola...</i>	<i>batzu(e)k..., beste batzu(e)k...</i>	<i>bata..., bestea...</i>	

Errepikaketa bidezko alborakuntzaren barruan lau juntadura-multzo bereiziko ditugu:

emendiozko alborakuntza	hautakaritzako alborakuntza
aurkaritzako alborakuntza	kausazko alborakuntza

Askotan, elementu guztiak aipatu ondoren, haiek biltzen dituen beste elementu bat jarri ohi da.

Bai zuk, bai nik, biok jaso behar dugu mahaia.

Ez goizez, ez gauez, inoiz ez nauzu bakean uzten.

Batzuetan, *laguntzailea* elementu bakoitzari lotuta jartzen dira, eta elementua adina aldiz errepikatzen. Beste batzuetan ilarako azken elementuaren aurrean jarri ohi dira.

*Errepikatzen dira:*  
*bai, ez, -la*  
*Behin jartzen dira:*  
*nahiz, zein*

Bai Amerikan, bai hemen, zakurrak zakur dira.

Amerikan zein hemen, zakurrak zakur dira.

Hau dela, hori dela, hura dela, zu beti borroka bila.

Hau, hori, nahiz hura esan, inork ez nau ulertzen.

Bai zuek, bai ni bigarren multzoko *laguntzaileak* ikusteko irrikitan gaude. Ez al da horrela? Adiskideak, bigarren multzoan bi *laguntzaile* bakarrik ikusiko ditugu. Biak ala biak oso antzekoak.

*Ez ezik, ...ere*  
*ez bakarrik, ...ere*



**LOREA** Jon **ez ezik**, beste guztiak **ere** etorri dira.  
**MIKEL** Marta ere bai?  
**LOREA** Jakina. Esan dizut, Jon **ez ezik**, beste guztiak **ere**  
 etorri direla.  
**MIKEL** Beraz, denak etorri dira.  
**LOREA** Azkenean ulertu duzu. Ulertu duzu?  
**MIKEL** Bai ulertu dut. Ez hori **bakarrik**, beste gauza asko **ere**  
 ulertu dut.  
**LOREA** Hara, zer gauza gehiago ulertu duzu, bada, jakin  
 badaiteke?  
**MIKEL** Ulertu dut Jonek txora-txora eginda zauzkala.  
**LOREA** Nondik atera duzu kontu hori?  
**MIKEL** Eta ez hori **bakarrik**, Jon agertu orduko lerdea  
 darizula jartzen zarela **ere** ikusi dut.  
**LOREA** Baina, zer diozu?  
**MIKEL** Lerdea **ez ezik**, neuronak **ere** galtzen dituzula  
 konturatu nahiz.  
**LOREA** Mikel demonioa, txikitako zaitut, zatoz hona.

Jon **ez ezik**, beste guztiak **ere** etorri dira.

Emendiozko esapide hau aurreko juntagaiaren atzean *ez ezik* eta  
 bigarren juntagaian *ere* lokailua gehituz eratzen da.  
 Eta ez da komeni *izan ezik* esapidearekin nahastea.  
 Esanahi oso ezberdina daukate eta.

Jon **izan ezik**, denak etorri dira.

Jon ez da etorri, beste guztiak bai.

Jon **ez ezik**, beste guztiak **ere** etorri dira.

Jon etorri da eta beste guztiak **ere** bai.

**Ez hori bakarrik**, beste gauza asko **ere** ulertu dut.

Kasu honetan **ere** esapidearen lehen zatia aurreko  
 juntagaiaren atzean *do* eta *ere* lokailua bigarren juntagaian.

## Osatu perpausak:

Oraindik ez dut ez ..... irakurri, ez ..... egin.

Bihar ez naiz ez ....., ez ..... joango.

Hona ez dute ez telefonoz deitu, ez.....

Egia da bai nik esan dudana, bai.....

Bai ....., bai..... oso zintzoa naiz.

Nahiz ....., nahiz....., toki batera iritsiko naiz.

Zein ....., zein ....., berdin-berdinak dira.

Hala ....., nola ....., biak daude txarto.

Nola ....., hala ....., jatorra naiz oso.

..... ez ezik, ..... ere hara joaten gara.

..... ez ezik, ..... ere egin dut.

..... izan ezik, ..... egin dituzue.

-Ikusi duzu Anderren autoa?

-Ez bakarrik ikusi, ..... ere egin dut.

-Egin al dituzu eskolako lanak?

-Eskolakoak bakarrik ez, ..... eta ..... ere egin ditut.



## hautakaritzako alborakuntza

LOREA	Kaixo, Mikel, ikusi al duzu nire ordularia?
MIKEL	Zure ordularia? Urrezkoa?
LOREA	Bai, urrezkoa. Ikusi al duzu?
MIKEL	Bai, ikusi dut. Baina ez dut gogoratzen non. <b>Edo</b> gelan <b>edo</b> sukaldean ikusi dut.
LOREA	Ez gelan, ez sukaldean ez dut aurkitu. Eta begiratu dut, ondo begiratu ere.
MIKEL	Bada bietako batean egon behar du. Nik ikusi dut eta.
LOREA	Bada, zer esango dizut nik; <b>edo</b> ikusmena galtzen ari naiz <b>edo</b> han ez dago. Dena hankaz gora jarri dut eta.
MIKEL	Ez didazu ezer esan behar; <b>edo</b> ganoraz begiratzen duzu, <b>edo</b> ez duzu aurkituko, zorioneko ordularia.
LOREA	Ez dakit zer egin, ez non bilatu.
MIKEL	Ea Lorea: <b>edo</b> barrura sartzen zara eta atea ixten duzu, <b>edo</b> bazoaz kanpora eta atea ixten duzu; aukeratu bietako bat; hemen hotz egiten du eta.
LOREA	Baina...
MIKEL	Ez aipatu ez bainarik ez bainondorik; <b>edo</b> sartu, <b>edo</b> irten.
LOREA	Ongi da, ongi da, banoa.

Hautakaritzako alborakuntza, izenak berak adierazten duen bezala, juntagai bi ego gehiagoren arteko aukera adierazteko erabiltzen da. Bi dira hautakaritzako alborakuntza bideratzeko laguntzaileak:

*edo...*, *edo...* *eta ala...*, *ala...*

*edo...*, *edo...*

*edo...*, *edo...* egiturako elementu bakoitzak bere perpausaren hasieran hartzen du lekua.

**Edo** barrura sartzen zara eta atea ixten duzu,  
**edo** bazoaz kanpora eta atea ixten duzu.

Esaldi-mota hauetan sarritan aditza ezabatu egiten da. Ikus dezagun.

**Edo sartu edo irten.**

Batzuetan baldintza kutsua ere izaten du hautakaritzako alborakuntzak. Entzun

**Edo ganoraz begiratzen duzu, edo ez duzu aurkituko, zorioneko ordularia.**

*ala..., ala...*

*ala..., ala...* egitura ere erabil daiteke hautakaritzako alborakuntza gauzatzeko. Baina, egia esateko, euskaldunok gutxitan erabiltzen dugu.

Markel gelako atean ikusi nuenean,  
ikaratu egin nintzen eta ez nuen jakin  
zer egin:  
**ala ohe azpian ezkutatu, ala leihotik ihes egin.**

Nik ez dakit zertan dabilen. Bietako bat:  
**ala ez da konturatu, ala ez du ezer ulertu.**

Ez dut ezer ulertzen:  
**ala ez diote ezer esan, ala ez zaio interesatzen.**

¶

Ikasle bakoitzak idatz diezaiola klaseko kide bakoitzari, hautakaritzako alborakuntza erabiliz, esaldi bat orri zati batean, eta ongi tolestuta eman diezaiola irakasleari. Azkenean, zein norena den jakiteke denak irakurriko dituzte kideen aurrean.

Adibidez,

Ander, **edo** nirekin zatoz, **edo** Amaiarekin zoaz; erabaki behingoz.  
**edo**

Ander, **ala** ez dizute ezer esan, **ala** ez zaizu Ana interesatzen.

## aurkaritzako alborakuntza

LOREA	Zure proiektua niri, <b>alde batetik</b> , oso interesgarria iruditu zait; <b>bestetik</b> , garestiegia delakoan nago.
OLATZ	Ni ados nago zurekin; hara, proiektuaren alderdi <b>batzuk</b> oso ondo daude; <b>beste batzuk</b> ez hain ondo eta <b>beste batzuk</b> ez dira ulertzen.
LOREA	Lan handia egin duzu, Mikel. Harrituta nago. Eta diseinua... Diseinua eta maketazioa primerakoak dira.
OLATZ	Hori bai; niri ere asko gustatzen zaizkit txostenaren diseinua eta maketazioa. <b>Batzuetan</b> , azalak du garrantzia, <b>beste batzuetan</b> , mamiak.
LOREA	Bai, <b>batzuek</b> garrantzi handia ematen diote mamiari; <b>beste batzuek</b> , <b>ordea</b> , azalari.
OLATZ	Dena dela, bai azalak, bai mamiak; batak zein besteak garrantzi berdin-berdina daukate.
LOREA	Oso ondo hitz egin duzu, Olatz. <b>Batak</b> ikusmena erakartzen du, <b>besteak</b> adimena.
OLATZ	Hori da. Ederto esan duzu, Lorea. Anderren proiektuaren kasuan, <b>bata</b> oso ona da; <b>besteak</b> , <b>berriz</b> , nahikoa txarra.
LOREA	Bai, nik ere, <b>alde batetik</b> , oso gustura ikusi dut, <b>baina</b> , <b>bestetik</b> , ez dut ulertu zer esan nahi duen.
OLATZ	Ados nago. <b>Alde batetik</b> , proiektua oso polita da, paper leun-leuna dauka, oso atsegina, ukimen gozokoa; <b>baina</b> <b>bestetik</b> , esaldien esanahia ez da ulertzen.
LOREA	<b>Alde batetik</b> , gustagarria da; <b>baina</b> , <b>bestetik</b> , nekagarria.
MIKEL	Aski da neskak, aldatuko al dugu gaia?

Aurkaritzako alborakuntzak, izenak berak aditzera ematen duen legez, juntagai bien arteko aurkaritza edo kontrastea adierazten du.

**alde batetik**, oso interesgarria iruditu zait;  
**bestetik**, garestiegia delakoan nago.

**Batzuek** garrantzi handia ematen diote mamiari;  
**beste batzuek**, **ordea**, azalari.

Ikusi duzueenez, aurkaritzaren osagai biak kasu berean deklinatuta daude. Bestalde, Euskaltzaindiak *bat* bakarrik agertzen denean, mugatuan deklinatzea gomendatzen du.

**Bata oso ona da; bestea, berriz, nahikoa txarra.**

**Batak ikusmena erakartzen du, besteak adimena.**

Egitura hori maiz *eta eta baina* juntagailuekin batera erabiltzen da.

**Alde batetik, proiektua oso polita da,  
paper leun-leuna dauka, oso atsegina,  
ukimen gozokoa;  
baina, bestetik, esaldien esanahia ez da ulertzen.**

Ataleko antzezpenaren gidoiari jarraikiz, aurkaritzako alborakuntza erabiliz, idatzi artelan bati buruzko zure iritzia, zazpi lerrotan. Artelana koadro bat, film bat, komiki bat, poema bat ... izan daiteke.

Artelanaren izena:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## *kausazko alborakuntza*

Alborakuntza-mota hau elkartutako perpausen arteko kausazko lotura adierazteko erabiltzen da.

*nolako... , halako...    nora... , hara...  
non... , han...        zer... , hura...*

Egitura hau lehenengo juntagaian galdetzaile bat eta bigarrenean harekin korrelazioan dagoen osagai bat jarriz eratzen da, eskuarki.

**Nolako aita, halako semea.**

**Eguzkia nora, zapiak hara. Bixente nora, jendea hara.**

**Umeez, badakizu: zer ikusi hura ikasi.**

**Nolako aita, halako semea.**

**Eguzkia nora, zapiak hara. Bixente nora, jendea hara.**

**Umeez, badakizu: zer ikusi hura ikasi.**

Horiek bezalako erduei jarraikiz asmatu esapide berriak.

Jari arreta juntagaien arteko korrelazioari.

Nolako ....., halako .....

Non ....., han .....

Zer ....., hura .....

Norekin ....., halako .....

Azkenean, kideen aurrean irakurri ozenki.

## GRAMATIKAKERIA

- LOREA** Beno hemen gaude etorri garelako.
- MIKEL** Bai.
- LOREA** Zer egingo dugu orain?
- MIKEL** Beno, alde batetik, janaria daukagu; beste aldetik, telebista. Aukera dezakegu.
- LOREA** Bai telebistari begira, bai ogitartekoa jaten ongi pasatuko dugu.
- MIKEL** Biak batera ere egin daitezke. Telebista nahiz ogitartekoa atsegin ditut.
- LOREA** Bai. Batarekin begiak alaituko ditugu, bestearekin sabela eta hesteak.
- MIKEL** Batetik, jakituria garatuko dugu; bestetik, giharrak indartuko.
- LOREA** Dela telebistari begira, dela ogia mastekatzen, ederto pasatuko dugu.
- MIKEL** Konforme nago. Hala irudiak, nola jangaiak onak dira osasunerako.
- LOREA** Ez dakit nik. Ez nago batere konbentziturata.
- MIKEL** Ni ere ez.
- LOREA** Hala zuk, nola nik zalantzak ditugu.
- MIKEL** Arrazoia duzu. Hala nola zu, ni ere ez nago batere seguru.
- LOREA** Bat-batean, ez ditut gogoko ez telebista ikusteko, ez otartekoa jateko.
- MIKEL** Ezta nik ere. Nahiago dut beste zerbait egin.
- ZUZENDARIAK MOZTEN DU.-** Moztu. Moztu. Oso ondo.
- MIKEL.-** Niri ez zait gustatu. Ez naiz batere ongi sentitu.
- Hainbeste nola hala, alde batetik bestetik, hala nola zu...
- LOREA.-** Ados nago zurekin. Gramatika aldetik ongi egongo da ziur aski, baina...



## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:

*Euskal Gramatica Osoa,*

Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:

*Gramática Gaitasuna Lantzen,*

Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:

*Euskaltzaindiaren arauak,*

Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

## Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)